



## BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOARI SALTZEKO ESKAINTZA,

.....  
 jaunak/andreak, NANaren zenbakia: ....., egoera zibila: ..... /  
 ..... (ezkonduta badago, adierazi ezkontza-erregimen ekonomikoa), eta  
 ..... jaunak/andreak, NANaren zenbakia:  
 ....., egoera zibila: ..... / ..... (ezkonduta badago, adierazi  
 ezkontza-erregimen ekonomikoa), eta biek .....(e)ko Lurralde Historikoan  
 ..... udalerrian (..... kalea, .....zk.a .....solairua,  
 .....atea) helbidea dutenek, ..... telefono- zenbakiarekin, hemendik aurrera  
 eskaintzaileak izango direnek, idazki honen bitartez

### ADIERAZI DUTE:

1.- Honako helbide honetako eta ezaugarri hauek dituen etxebizitzaren jabeak direla:  
 ..... kalea, ..... zk, ..... solairua,  
 ..... atea, .....go/ko udalerrian, .....ko Lurralde  
 Historikoan; ..... m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria duena, (hala badagokio, ..... zenbakiko  
 trastelekuarekin, ..... metro koadroko azalera erabilgarriduna, eta ..... zenbakidun  
 garajearekin, ..... metro koadroko azalera erabilgarria duena).

2.- Aipatutako etxebizitzak (eta, hala badagokio, hari erantsitakoak) babes ofizialeko kalifikazioa  
 jaso zuela .....(e)an. Espediente zenbakia:  
 .....

3.- Etxebizitza (hala badagokio, trastelekua eta garajea), gaur egun, honako egoera honetan  
 dago (dagokion laukian X batekin adierazi):

Ez du karga, zama edo errentamendurik

Honako karga hauek ditu (jarraian adierazi)

- Ordaintzeke dagoen diru-kopurua:  
 .....

- Hartzekoduna :  
 .....

- Errentamenduak:  
 .....

(adierazi errentamenduaren epea eta errentariaren identifikazioa)

- Beste karga edo ohar  
 batzuk:.....

4.- Beren jabetzako etxebizitza (trastelekua eta garajea) saltzeko asmoa dutela, eta beraz,  
 idazki honen bidez **SALMENTAN ESKAINTZEN DUTELA** aipatutako etxebizitza (trastelekua  
 eta garajea), honako baldintza hauetan:

5.- Salmenta-prezioa, guztira: .....€; Etxebizitza:  
 .....€; Garajea: .....€; Trastelekua:  
 .....€



## ADOSTEN DUTE:

**LEHENA.- Onuradunak.** Salmenta-eskaintza sailari nahiz **ALOKABIDE SA** sozietate publikoari egiten zaie, berdin-berdin. Era berean, lurralde-ordezkariek ebazpena eman dezake esleipenduna izendatzeko.

**BIGARRENA. Epea.** Salmenta-eskaintza hau loteslea izango da eskaintzaileentzat HIRU HILABETEKO epean, eskaintza hau eta erantsitako dokumentazio oro Etxebizitza Saileko Lurralde Ordezkaritzaren erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita.

Epe hori eten egingo da dokumentazio osagarria aurkeztea eskatzen denean. Eskaintzaileek eskatzen den dokumentazio guztia, gehienez ere, 10 egun balioduneko epean aurkezteko konpromisoa hartzen dute.

Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioak edota hark gomendatutako entitateek ez dute onartuko salmenta-eskaintza, prozeduraren hasieratik hiru hilabete baino gehiago igaro badira edo prozedura hau hasi zenetik 5 uko egite baino gehiago izan badira.

Salmenta-eskaintza onartzen ez bada, halaxe jakinarazi behar zaie eskaintzaileei, aplikagarria den araudiak xedatutakoaren arabera.

**HIRUGARRENA. Etxebizitzaren egoera. Egiaztapenak, bisitak eta informazio gehigarria.** Etxebizitzaren (trastelekua eta garajea) eskaintzaileek adierazten dute etxebizitza, eranskinak eta eraikina oro har, kontserbazio- eta erabilera-egoera onean dagoela, eta haren bizigarritasuna eragozten edo kaltetzen duen akatsik ez duela. Salmenta-eskaintzaren aurkezte-egunaz geroztik, etxebizitzaren titularrek salmentaren onuradunei etxebizitza erosteko beharrezkoak izan daitezkeen egiaztapen, bisita eta informazio guztiak egiteko laguntza emateko konpromisoa hartu dute.

**LAUGARRENA. Prezioa, epea eta salmenta-eskaintzaren gainerako ezinbesteko baldintzak.** Salmenta-eskaintzak honako ezaugarri hauek izango ditu:

.- Prezioa. Eskualdatzearen prezioa eskaintzaileak adierazitakoa izango da, baina ezingo du izan etxebizitzaren (trastelekua eta garajea) indarrezko legezko gehieneko prezioa baino handiagoa. Nolanahi ere, salerosketa-kontratu pribatua ikus-onetsi aurretik, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko salmenta-prezioa aldatzen bada, salerosketa ezingo da egin aipatutako ikus-onetsiaren egunean indarrean zegoen prezioaren gainetik.



Adierazitako prezioaren barruan sartuta daude etxebizitzan (trastelekua eta garajea) egin diren obra eta hobekuntza guztiak, eta, beraz, idatz-zati honetan zehaztutako kopuruaren desberdina den kopuru bat ez da ezein kasutan eskatuko.

- Eskualdatzearen gastuak. Eskualdatzearen gastu guztiak erosleak ordainduko ditu (notaritza-gastuak, zergak...), Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga (udalgainbalioa) izan ezik; gastu hori saltzaileak ordainduko du.
- Altzariak: Etxebizitza ALTZARIRIK GABE eskualdatuko da, eta eskaintzaileek bertan dauden altzariak salerosketa-eskritura publikoa formalizatzen den eguna baino lehen kentzeko konpromisoa hartzen dute. Kendu beharreko altzarizat hartuko da etxebizitzatik banandu daitekeen guztia, betiere hura hondatu gabe edo hura behar bezala erabiltzeko beharrezkoa den ezer kendu gabe, adibidez: sukaldeko altzariak, etxetresna elektrikoak, aplikeak, lanparak, etab. Altzariei dagokienez, eskaintzaileek etxebizitzaren erosleei horiek saltzeko aukera izango dute, aldeztatik tasatuta. Altzarien prezioari buruzko akordiorik ez bada lortzen, eskaintzaileek, salerosketa-eskritura publikoa formalizatzen den eguna baino lehen, altzariak kentzeko konpromisoa hartzen dute. Egun horretarako kendu ez direnak bertan behera utzitakotzat joko dira ondorio guztietarako.
- Salerosketa-kontratu pribatua sinatzeko eta aurrerakinak kobratzeko epea. Salerosketa-kontratu pribatua, gehienez ere, HILABETEKO epean sinatuko da, **ALOKABIDE SA** sozietate publikoak onuradun gisa izendatutako pertsonen onarpena eskaintzaileei jakinarazten zaienean edota esleipenduna izendatzeko lurralde ordezkariak emandako Ebazpena jasotakoan zenbatzen hasita. Adierazitako salerosketa-kontratu pribatua sinatzen den unean, etxebizitzaren prezioaren % 20 ordainduko zaie eskaintzaileei, baita atxikitako eranskinen prezioaren % 40 ere.
- Salerosketa-eskritura publikoa sinatzeko eta prezioaren gainerako kopurua kobratzeko epea. Salerosketa-eskritura publikoa erosleak izendatutako Notarioaren aurrean formalizatuko da, gehienez ere HIRU HILABETEKO epean, salerosketa-kontratu pribatua ikus-onetsi den egunetik zenbatzen hasita. Salerosketako eskritura publikoa sinatzen denean ordainduko da aurretik aipatutako prezio guztia, ordaindutako aurrerakina izan ezik. Etxebizitza kargarik gabe eta ordainketa guztien egiaztagiriek eskualdatuko da. Etxebizitzak kargak baldin baditu, eskaintzaileek salerosketa-eskritura publikoa sinatu baino lehen horiek kitatzeko konpromisoa hartzen dute, eta kitatze horrek eragin ditzakeen gastuak (notaritza, erregistroa...) ere ordainduko dituzte. Salerosketa-eskritura publikoa formalizatzen den unean, eskaintzaileek jabeen erkidegoari diru-kopururik zor ez zaiola egiaztatzen duten egiaztagiriak emango dituzte.



**BOSGARRENA. Eskaintzaileek ALOKABIDE SA sozietate publikoaren esku utzitako kudeaketak.** Salmenta-eskaintza hau ETXEBIDEn inskribatutako eta **ALOKABIDE SA** sozietate publikoak edo lurralde-ordezkararen ebazpen bidez izendaturiko norbaitek onartzen badu, dokumentu honen bitartez eskaintzaileek espresuki **ALOKABIDE SA** sozietate publikoaren esku uzten dute dagokion salerosketa-kontratu pribatua sinatzeko eta hura eskritura publikora eramateko beharrezkoak diren gestio guztiak egitea (kontratua idaztea, sinatzeko eguna zehazteko eroslearekin bitartekari lana egitea, kontratu pribatua Etxebizitza Sailaren Lurralde Ordezkaritzan aurkeztea ikus-onetsi dezaten etab.).

**SEIGARRENA.- Kalifikazio-epea luzatzeko eskaera.** Dokumentu honen bitartez, eskaintzaileek Etxebizitza Sailaren Lurralde Ordezkaritzari eskatzen diote salmentan eskaintzen den etxebizitza BOE gisa kalifikatzeko epea luzatzea, BEHIN BETIKO bihurtuz, beti ere, salmenta-eskaintza onartzen baldin bada.

....., 2013.....(e)ko .....aren .....(a)

Sin.:

Sin.:

NAN:

NAN:

Jabe ez den ezkontidearen baimena, senar-emazteen ohiko etxebizitza eskaintzen bada saltzeko.

Sin.:

NAN:

**Jn.: ..... INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA**



## ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA

1. Jabeen NANen fotokopiak.
2. Etxebizitzaren erosketaren eskritura publikoaren fotokopia.
3. Etxebizitzaren eta, hala badagokio, trastelekuaren eta garajearen titulartasunari eta kargei buruzko Erregistroko ziurtagiria, eta azalera-eskubidearen inskripzio-data Jabetza Erregistroan, baldin eta ziurtagirian agertzen ez bada, salerosketa-eskaintza hau egin eta GEHIENEZ ERE ZAZPI EGUNEKO epean emandakoa.
4. Jabeen erkidegoko idazkariaren ziurtagiria honako hau adieraziz: ordaindu beharrekoak ordainduta dituela eta ez diola erkidegoari ezer zor, baita higiezinari buruzko inguruabarren eta egoeraren adierazpena ere (prozesu judizial batean sartuta dagoen, demandaren bat duen, ekarpenak zehazten ari diren etab.).
5. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiriaren kopia (OHZ).
6. Udalaren idazkia, lehentasunez eskuratzeko eskubideari buruzkoa, baldin eta eskubide hori salerosketako eskritura publikoan jasota badago.



## LEGE-OHARRA

### DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, zuk jaso duzu informazioa, eta baimena eman, zure datuak “Eroslehentasunak eta salmenta-eskaintzak” izeneko fitxategian sartzeko. Fitxategi horren ardura du ALOKABIDE SA sozietate publikoak, helbidea: Gamarrako atea, 1-A, 2. solairua, 01013 Vitoria-Gasteiz (Araba). Datu pertsonal horiek erabili ahal izango dira jarduera hauek egiteko: a) - Alokabidek lehentasunez erosteko eta eskuratzeko eskubidea gauzatzeko, babes ofizialeko etxebizitzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eskualda daitezen, edo salmenta-eskaintza edo eskueran uztea ETXEBIDEN inskribatutako norbaitek onartzen badu, bitarteko-lana egiteko salmenta-eskaintza edo eskueran uztekoa kudea eta gauza dadin, barnean direla salerosketako kontratu pribatua sinatzeko eta hura eskritura publiko bihurtzeko beharrezko diren kudeaketa guztiak egitea, bai eta b) – zurekin harremanetan egoteko, eta zerbitzua hobetzeko ekintzetarako zure iritzia edo partaidetza eskatzeko, eta c) – ohiko postaren bidez edo posta elektronikoaren bidez Alokabideren produktu eta zerbitzuen informazio teknikoa, operatiboa edo merkataritzakoa bidaltzeko ere. Zure datuak b) eta c) idatz-zatietan adierazitako helburuetarako erabiltzerik nahi ez baduzu, mesedez, markatu laukitxo hau

Era berean, adierazi nahi dizugu babes ofizialeko etxebizitza eskualdatzetik sortutako kontratuzko harremana behar bezala kudeatzeko, harreman horri eusteko eta kontrolatzeko, zu identifikatzen zaituzten datu pertsonalak hauei eman ahal zaizkiela: babes ofizialeko etxea erosi duenari, salerosketako eskritura publikoa egingo duen notarioari, babes ofizialeko etxebizitza tasatuko duen higiezinak tasatzeko enpresari, eskualdatuko diren etxebizitzaren gainean hipoteka bidez kredituak bermatuta dituzten erakunde finantzarioei, etxebizitzaren gaineko kargaren bat izan dezaketen erakunde publiko edo pribatu orori –hala badagokio, kargak kitzatzea kudeatzeko– eta etxebizitza dagoen jabeen erkidegoari –erkidegoarekin zorrik badagoen egiaztatzeko eta, hala badagokio, zorrak kitzatzea kudeatzeko-.

Aurreko idatz-zatian adierazitakoagatik guztiagatik, zuk baimena ematen diozu **ALOKABIDE SA** sozietate publikoari beharrezko datuak biltzeko haueetatik: eskualdatzen diren higiezinaren gainean hipoteka bidez kredituak bermatuta dituzten erakunde finantzarioetatik, etxebizitzaren gainean kargaren bat izan dezaketen erakunde publiko edo pribatuetatik, etxebizitza dagoen jabeen erkidegotik, kontratuzko harremana kudeatzeko eta eskualdatzea kargarik gabe egiteko bete behar diren baldintza eta betekizun guztiak betetzen eta irauten dutela egiaztatzeko; horrenbestez, erakunde horiei baimena ematen diezu eskatutako datu pertsonalak guri emateko.



Datu horiek eskuratzeko, behar dena zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuen aurka egiteko eskubidea baliatu nahi baduzu –horixe onartzen du espresuki DBLOk–, eskabide bat idatzi eta sinatuta bidali behar diozu **ALOKABIDE SA** sozietate publikoari helbide honetara: Gamarra atea 1-A, bigarren solairua 01013 Vitoria-Gasteiz (Araba), eta eskabideari NANaren fotokopia bat erantsi behar diozu. Zure datuak aldatu badira, jakinarazi egin behar dizkiguzu, helbide horretara idatziz, eta guk uko egiten diogu izan dezakegun ardura guztiari, interesdunak aldaketen berri ematen ez badigu.

Izp:

Izp:

NAN: .....

NAN: .....